



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 6a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa. Erretiratutako proiektua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Nafarroako Ospitaleko E eta G pabiloietako garbiketa zerbitzua pribatizatze arrazoiei buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egina (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Maria Azpilkuetakoaren irudia nabarmentze aldera ekitaldiak antola ditzan Baztanen, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateei ingurumen eta hirigintza arloetan aholku emateko bulego teknikoak abian jar ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza ereduen arteko bizikidetasun-irizpideei jarraikiz egin dezan hezkuntza sistemaren plangintza. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Europako Parlamentuaren erabakia, Estatu Batuetako Gobernua premiatzen duena Estatu Batuetako indar armatuek Guantanamoko basean erabiltzen duten atxilo-gunea berehala itxi dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldiei eta horien aurrekontu xehatuari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (9. or.).

- Galdera, Nafarroa Fitur 2006 turismo azokara joateari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (10. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (10. or.).
- Galdera, II. Errepublikaren 75. urteurrena dela-eta Legebiltzarrak onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (11. or.).
- Galdera, iragan otsailaren 4an Xabierren alkateekin antolatutako ekitaldiari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egin (12. or.).
- Galdera, ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egin (12. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Erabakia, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2006ko otsailaren 20an harturikoa, 53 ordenagailu eraman-garri erosteko lehiaketa publikorako deialdia egiten duena (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa.

ERRETIRATUTAKO PROIEKTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak 2006ko otsailaren 13an egindako bileran erabaki zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektua erretiratzea, Erregelamenduko 147. artikuluari jarraituz. Erabaki hori ikusita, honakoa ERABAKI DA:

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektua erretiratzat hartzen duela adieraztea. Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 131. zenbakian –2005eko abenduaren 19koan– argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Ospitaleko E eta G pabiloietako garbiketa zerbitzua pribatizatzeke arrazoiei buruzkoa.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako Ospitaleko E eta G pabiloietako garbiketa zerbitzua pribatizatzeke arrazoiei buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Osasun kontseilari Kutz andreari, eta tramitatzeke onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Berriki jakin dugu Nafarroako Ospitaleko E eta G pabiloietako garbiketa zerbitzua kanpoan kontratatuko dela. Hau da, egungo UPN-CDN-ren Nafarroako Gobernuak, beste behin, zerbitzu publikoak pribatizatzearen aldeko apustua egin du.

Hori dela eta, parlamentu-talde honek honako jabeldura aurkeztu du:

Jakin nahi dugu zein diren Nafarroako Ospitaleko E eta G pabiloietako garbiketa zerbitzua kanpoan kontratatzeke arrazoiak eta ea politika horrek jarraipena izanen duen foru erkidegoko beste zerbitzu publiko batzuetan.

Hori horrela,

Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot aurreko jabeldura aurkeztutzat jo dezala eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2006ko otsailaren 22an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Maria Azpilkuetakoaren irudia nabarmentze aldera ekitaldiak antola ditzan Baztanen, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Maria Azpilkuetakoaren irudia nabarmentze aldera ekitaldiak antola ditzan Baztanen, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari eta eledun Begoña Errazti Esnal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Aurten, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatuko dugu. Frantzisko Jatsukoa nafar unibertsala izan zen, eta bere baitan biltzen dira, eginiko erlijio-lanaz gainera, Nafarroako idiosinkrasia kultural eta historikoaren berezko ezaugarri batzuk; esate baterako, Nafarroako herriaren subiranotasunarekin konprometituriko bizitza eta gure hizkuntzarekin, euskararekin, zeukan lotura zalantzagabea.

Hartara, parlamentu-talde honek funtsezkotzat jotzen du V. mendeurrenako ekitaldiak antolatu eta ospatzea halako moduan non santuaren figura herritarrei hurbilduko zaien eta, aldi berean, gure erkidegoa bultzatzeko balioko duen.

Hala eta guztiz ere, eskura dauzkagun informazioek adierazten dute Frantzisko Xabierkoaren figuraren funtsezko alderdi batzuk, kultur aberastasuna sustatzearen arloan aktibo zalantzagabea diren ezaugarri kultural eta historikoen funtsezko adierazgarri direnak, ahazten ari dela departamendua mendeurrenako ospakizunetan.

Horiek direla eta, parlamentu-talde honetan badakigu Frantzisko Jatsukoaren amari dagokio-

nez, alegia Maria Azpilkuetakoari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ez duela aurreikusi inongo ospakizunik edo oroitzarrerik Baztanen. Gure ustez, Baztan eta oro har Nafarroa sustatzeko aukera galtzea da, eta Kultura Departamentuak bere erantzukizunari ihes egitea, ez baitzaizkio ospakizunak egokitzen santuaren eta Nafarroaren figurak testuinguru historiko eta kulturalen daukan garrantzi orokorrari.

Halaber, guk dakigunez ez da santuaren eta haren familiaren euskalduntasunari buruzko inongo aipamenik egiten, eta bere hizkuntza propioa gorde izatearen pribilegioa daukan lurralde baten izena azpimarratzeko, sustatzeko eta zabaltzeko aukera galduko da.

Horregatik guztiagatik, gure parlamentu-taldek honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Baztanen ekitaldiak antola ditzan, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizunetan, eta haietan Maria Azpilkuetakoaren figura nabarmendu dezan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskara sar dezan Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenerako Nafarroan antolatzen diren ospakizun eta sustapen ekitaldi guztietan.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietara zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak egin edo eskatzen dituen estatistiketan sexuaren aldagaia sartzeari buruzkoa, Gizarte Ongizatearen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Nazio Batuek 1995ean Pekinen egindako Emakumeari buruzko IV. Mundu-Konferentzian, ekin-tzetarako plataforma bat onetsi zen, helburu estratetikoen artean berriaz hau jasotzen duena: plangintzarako eta ebaluaziorako datuak eta informazioa sexuaren arabera prestatu eta zabaltzea. Gainera, gobernuek eta estatistika zerbitzu nazionalak helburu hori betetzeko hartu beharreko neurri batzuk ematen ditu. Besteak beste, adinaren, sexuaren, adierazle sozio-ekonomikoen eta bestelako arabera azaldutako datuak aldizka jaso, bildu, aztertu eta aurkeztea, haien barnean dela, baita ere, zenbat senitarteko dituen bere kargura. Datu horiek plangintzan eta aplikazioan eta politiketan eta programetan erabiliko dira.

Duela gutxi eginiko agerraldian, Foru Komunitateko berdintasunaren arloko erakunde garrantzitsueneko arduradunak, hau da, Emakumearen Institutuko zuzendari-kudeatzaileak onartu zuen garrantzitsua dela datu guztiak sexuaren aldagaia-arabera sailkatuta izatea; izan ere, datu hori ezinbestekoa da Nafarroako administrazio publiko-ek arauak ematerakoan generoaren eraginari buruzko nahitaezko txostenak zorrotzasunez egin ahal izateko.

Azaldutakoa dela eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1.- Behar diren neurriak har ditzan emakumeen eta gizonen arteko aldea kuantitatiboki eta kualitatiboki erabat ezagutzeko, bizitzaren arlo guztietan.

2.- Nafarroako Gobernuak egin edo eskatzen dituen estatistika guztietan, sexuaren araberako bereizketa egin dadin.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da toki entitateei ingurumen eta hirigintza arloetan aholku emateko bulego teknikoak abian jar ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da toki entitateei ingurumen eta hirigintza arloetan aholku emateko bulego teknikoak abian jar ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurra Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Lurraldearen Antolamenduko kontseilariak, gure taldeak galdetuta, aditzera eman zuen departamentua arduratuko dela udalei ingurumen arloko aholkuak emateaz.

Eskura daukagun informazioaren arabera argi eta garbi dago orain arte Namainsaren laguntza-bitartez betetzen ziren udal eskariei erantzuna emateko bitarteko nahikorik ez dagoela. Gobernuak, bestalde, Legebiltzarren aginduz, eskualdeko aholku bulegoak abian jartzeko betebeharra du, eta ez du egin;

Horiek horrela, departamentuak toki enteei hirigintzaren eta ingurumen arloan aholkua emateko betebeharra benetan gauzatu dadin, honako mozioa aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere bi hileko epean abian jar ditzan Nafarroako toki entitateei hirigintza eta ingurumen arloko aholkuak emateko eskualdeko bulego teknikoak.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du epe horretan behar diren giza-eta gauza-neurriak eta neurri telematikoak har ditzan udalek eskatzen dituzten aholkularitzako txosten teknikoak arin eta azkar egin daitezen, saiestuz hartara partikularrei egin ahal zaizkien kalteak.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza ereduen arteko bizikidetasun-irizpideei jarraikiz egin dezan hezkuntza sistemaren plangintza.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza ereduen arteko bizikidetasun-irizpideei jarraikiz egin dezan hezkuntza sistemaren plangintza".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskara sartzeara eta erabiltzea arautzen dituen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak indarra hartu zuenetik, hezkuntza sistema lau hizkuntza ereduren arabera antolatu da Nafarroan: A eredia edo gaztelaniazko irakaskuntza, euskara ikasgai gisa harturik; B eredia edo euskarazko irakaskuntza, gaz-

telania ikasgai gisa harturik eta lan hizkuntza gisa harturik ikasgai batzuetan; D eredia edo euskara hutsezko irakaskuntza, gaztelania ikasgai gisa harturik; eta G eredia deitu izan dena, edo gaztelania hutsezko irakaskuntza. Eredu horietaz gainera, azken garai hauetan beste bat ezarri da, esperimentala, gaur arte arautu gabea: I eredia da, irakaskuntza elebiduna gaztelaniaz eta ingelesez.

Aipatu foru dekretuko 21. artikulua ezarri zuen ikastetxe publikoetan euskaraz edo gaztelaniaz irakasteak ez duela nahitaez berekin ekarriko ikasleak ikastetxe ezberdinetan banatzea ikasten duten hizkuntzaren edo hizkuntza ereduaren arabera. Xedapen hori gorabehera, hizkuntza ereduak elkarrekin bizitzen egon diren sistema horren aplikazioak iraun duen ia hogeitun urteetan, ikastetxeak pixkanaka bereizten joan dira, halako moduan non gero eta ohikoagoa den, arrazoi ezberdinak direla kausa, ikastetxe publikoek hizkuntza eredu bakarra eskaintzea, edo gehienez ere antzekoenak diren ereduetatik bi (A eta G, B eta D, A eta I). Gero eta ikastetxe gutxiagotan egoten dira elkarrekin ikasketa gehienak hizkuntza ezberdinetan egiten dituzten ikasleak. Eskola maparen berrantolaketa bakoitzean, gero eta hurbilago ikusten dugu nahi ez genukeen errealitatea: ikastetxeak (eta ikasleak) hizkuntza arrazoiengatik bereiziak eta banatuak.

Hezkuntza sistemak, eta oso bereziki derrigorrezko irakaskuntzetan, topagune bat izan behar du ikasleek ikas dezaten elkarrekin bizitzen, besteak beste, gure gizarteak bereizgarri dituen ezberdintasunak eta aniztasuna errespetatuz eta

baloratuz. Hori dela eta, bizikidetasun hori sustatzeko eta edozein arrazoiengatik –hizkuntzarekin edo erlijioarekin lotutakoak, arrazoi sozialak eta arrazoi politikoak– gerta litezkeen banaketak saihesteko irizpideak erabiliz antolatu behar da sistema. Eskola banatzeko bidea ematen duen edozein sistemak berekin ekarriko du ezberdintasun sozialek bere horretan irautea eta alde kulturalak sakontzea, eta zailago eginen ditu kohesio soziala eta bizikidetasuna.

Arestian aipaturiko joerak irauteko arriskua dela eta, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du nahi duela hezkuntza sistema antola dadin ikastetxeetan hizkuntza ezberdinak eta hizkuntza eredu

ezberdinak elkarrekin egoteko irizpideen arabera, hori baita kultur aniztasunaren, bizikidetasun baketsuaren eta ezberdintasunarekiko errespetuaren balioak sendotzeko eta Nafarroako kohesio soziala lortzen laguntzeko tresna.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru erkidegoko hezkuntza sistemaren plangintzan eta garapenean lehentasunezko irizpide gisa ezar dezan ikastetxeetan hizkuntza eredu ezberdinak elkarrekin egon daitezela, eta behar diren neurriak har ditzan ikastetxe-etako banaketa, irakaskuntzarako erabiltzen diren hizkuntzak edo hizkuntza ereduak eragindakoa, saihesteko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Europako Parlamentuaren erabakia, Estatu Batuetako Gobernua premiatzen duena Estatu Batuetako indar armatuek Guantanamo basean erabiltzen duten atxilo-gunea berehala itxi dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Europako Parlamentuaren erabakia, Estatu Batuetako Gobernua premiatzen duena Estatu Batuetako indar armatuek Guantanamo basean erabiltzen duten atxilo-gunea berehala itxi dezan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du.

– Erabaki hau igortzea Amerikako Estatu Batuen enbaxadoreari, Europako Parlamentuko lehendakariari eta Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiari”

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldiei eta horien aurrekontu xehatuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldiei eta horien aurrekontu xehatuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentuari, idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru lege proiektuaren gainean parlamentuan eztabai-

da egin ondoren, kontusail bat onetsi zen, Kultura Departamentuari atxikia, "Xabier 2006" izenarekin; bertan, 3.500.000 euro jarri ziren, eta kopuru hori handitu ahalko zela ere ezarri zen.

Gobernua kontrolatzeko betebeharra dugunez, eta ikusita parlamentari honentzat ezaugarri hauek dituen gai bat plangintza baten arabera guttiz prestatzeko modukoa dela, handitu daitekeen kontusail baten beharrik gabe, parlamentari honek honakoak ezagutu nahi ditu:

Lehenenik: Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeari begira, planifikaturik, kokaturik eta egutegian ezarririk dauden ekitaldiak, kanpainak eta abar.

Bigarrenik: Haien eta zerbitzuen adjudikazioa hartu duten enpresen aurrekontu xehatua. Zerbitzu horiek adjudikatzeko erabilitako modua.

Hirugarrenik: Kontusaila handitzeko aukeraz baliatzeko asmorik ba ote duen. Justifikazioa.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroa Fitur 2006 turismo azokara joateari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroa Fitur 2006 turismo azokara joateari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuari, idatziz erantzun diezaión.

Berriki egin da Madrilén Fitur 2006 turismo azoka, eta Nafarroak bertan parte hartu du. Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehenik: Nola baloratzen du departamentuak Nafarroak Madrilén izaniko presentzia eta sustapenari begira eginiko agerpena?

Bigarrenik: Zenbat hartu-eman izan dira sektoreko profesionalekin eta zein dira aurreko urteen aldean antzeman diren ezberdintasunak?

Hirugarrenik: Zein parte-hartze izan zuten profesionalen partzuergoek eta elkarteek?

Laugarrenik: Zenbatekoa izan da Fitur 2006 azokan eginiko gastua? Kontzeptuen eta zerbitzuak eman dituzten enpresen azalpen xehatua, gastuak zein kontusailaren kargura egin diren zehaztuta.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau egin du, Gizarte Ongizateko Departamentuak idatziz erantzuteko:

Otsailaren 3ko 15. NAO, urtarrilaren 30eko 12/2006 Foru Agindua argitaratu zen; haren bidez, baimena eman zen 1.438.908,58 euroko gastua egiteko 923001-93530-4819-231300 kontusailaren kargura.

Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak izeneko kontusail honek 3.407.752 euro dauzka.

Hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zergatik ez da baimendu kontusailaren gutzitiko gastua foru agindu horretan?

2.- Noiz baimenduko da gastuaren gainerakoa?

3.- Uste ote du Gizarte Ongizate Departamentuak elkarteek beren lana egoki egin dezaketela kontusailak zatiturik daudela?

4.- Kontuan hartuta garrantzi handiko elkarte batek, urteetan zehar lan arduratsu asko egiaztatu duen batek, joan den ekitaldian 659.000 euroko dirulaguntza jaso zuela, aurreikusi al du departamentuak kontusail hori handitzea, ikusita ez dela inolaz ere nahikoa?

5.- Departamentuaren ustez, beste elkarte batzuentzako dirulaguntzen lerroan esleituta dagoen diru kopuruak aukera ematen al dio CORMINI dauden beharrei gutxieneko arreta eskainiz lan egiteko?

Iruñean, 2006ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, II. Errepublikaren 75. urteurrena dela-eta Legebiltzarrak onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, II. Errepublikaren 75. urteurrena dela-eta Legebiltzarrak onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuak, foru erkidegoaren egoerari buruzko azken eztabaidan –2005eko urri-

aren 14ko Osoko Bilkuran–, Nafarroako Gobernua premiatu zuen 2006. urtean zehar Espainiako II. Errepublikaren 75. urteurrena ospatzeko ekintzak antola zitzaizkion eta, partikulariki, errepublika aldiaren historiari eta gaur egun izan dituen ondorioei buruzko ikerketa, ezagutza eta zabalkuntza susta zitzaizkion, bereziki Nafarroari dagokionez.

Gaur egun arte, Nafarroako Gobernuak ez du horri buruzko inongo ekintzarik iragarri.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Beteko al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuak aipatu erabakian premiaz eskatutakoa?

Hala bada, zein ekintza aurreikusi ditu?

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, iragan otsailaren 4an Xabierren alkateekin antolatutako ekitaldiari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, iragan otsailaren 4an Xabierren alkateekin antolatutako ekitaldiari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Xabierren, otsailaren 4an alkateekin antolatutako ekitaldia dela eta, honakoak jakin nahi nituzke:

- Zein alkate joan ziren? Izena eta herria zehaztu.
- Zein ekitaldi egin ziren?
- Zein aurrekontu zegoen gastu horietarako eta zein kontusailen kargura ordainduko dira?
- Zein da deialdi horren kariatara eginiko ekitaldien kostua? Banan-banan zehaztu.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, ezgaitasuna duten pertsonak kontratatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

• Zenbat langile dira guztira eta Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile guztietan ehuneko zenbat dira % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonak?

• Eskaintza publikoan deitutako lanpostu guztien % 3 baino gehiago al dira 2005eko ekitaldian % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsona kontratatuak? Deitutako lanpostu guztien ehuneko zenbat dira % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna dutenak?

• Baldin eta 2005ean zehar pertsona horiek betetzen dituzten lanpostuak ez badira iritsi deitutako lanpostu guztien % 3 izatera, 2006rako enplegu publikoaren deialdietan zenbat lanpostu erreserbatzea aurreikusi du Nafarroako Gobernuak?

• % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten zenbat pertsona kontratatu dituzte aldi baterako Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek 2005ean, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren zazpigarren

xedapen gehigarriko hirugarren idatz-zatia aplikatuta?

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erabakia, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2006ko otsailaren 20an harturikoa, 53 ordenagailu eramangarri erosteko lehiaketa publikorako deialdia egiten duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bileran, 53 ordenagailu eramangarri erosteko lehiaketa publikorako deialdia onestea erabaki zuen.

– **Kontratuaren xedea:** 53 ordenagailu eramangarri erostea.

– **Lehiaketa irekia.** Tramitazio arrunta.

– **Kontratu-hartzaileen sailkapena:** Ikus orriak.

– **Lizitazioaren gehieneko aurrekontua:** 106.000 euro (BEZa barne).

– **Behin-behineko bermea:** ez da eskatzen.

– **Dokumentazioa eta argibideak non eskuratu:**

Nafarroako Parlamentua -
Zerbitzu Orokorrak. Navas de Tolosa 1, Iruña.
Telefonoa: 948 209 209, Fax zenbakia: 948 22 84 44
www.parlamento-navarra.es

– **Eskaintzen aurkezpena.**

Eskaintzak aurkezteko azken eguna: Iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta

biharamunetik kontaktzen hasita hogeita zazpigarren eguneko 12:00ak. Epearen azken eguna baliogabea bada (larunbata, jai eguna edo igandea), hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

– **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:** klausula administratibo partikularren orrian adierazten dena.

– **Aurkezteko tokia:** Nafarroako Parlamentua, Erregistro Orokorra, Navas de Tolosa, 1, Iruña.

– **Jendaurreko ekitaldiak Nafarroako Parlamentuaren egoitzan egingen dira** (Navas de Tolosa, 1, 31002 Iruña):

– **Proposamen teknikoak irekitzea:** Eguna eta ordua iragarkien oholean eta Nafarroako Parlamentuaren web gunean iragarriko dira: www.parlamento-navarra.es

– **Eskaintza ekonomikoak irekitzea:** Eguna eta ordua iragarkien oholean eta Nafarroako Parlamentuaren web gunean iragarriko dira: www.parlamento-navarra.es

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	